- URA Uraren Euskal Agentziak jakinarazi zuen, txostena gorabehera, Kantauriko Ur Konfederakundeari bidali ziola eskaera, hark txostena egiteari egoki irizten bazion ere. Horrez gain, gaineratu zuen ezingo zuela txostenik egin Usurbilgo Udalari eskatutako ikerketa hidraulikoa izan arte.
- Kantauriko Ur Konfederakundeak jakinarazi zuen, txostena gorabehera, URari bidali ziola dokumentazioa, hark txostena egiteari egoki irizten bazion ere.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza: dokumentazioa aztertu ondoren, ez zuen beharrezkotzat jo txostena egitea.
- Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza: dokumentazioa berrikusi ondoren, jakinarazi zuen jarduera proiektu horrek ez dakarrela eraginik kultur ondarearentzat.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak jakinarazi zuen aipatutako plana egikaritzeak ez dakarrela eragin nabarmenik osasun publikoarentzat, ingurumen eraginaren ikerketa edo ebaluazio prozesua bera egitean kontuan hartu beharreko funtsezko alderdirik dakarrenik.
- Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak bidalitako dokumentazioan jasotako proposamenaren aldeko txostena egin zuen, hirigintza proiektuan proposatzen baita Oriaren gunea mugakidean ingurumena leheneratzeko programa bat abiaraztea, gunea berriz bertako espezieekin landareztatzea eta espezie exotiko inbaditzaileak kontrolatzeko programa bat proposatzen baita. Programa horiek zehatz-mehatz definitu beharko dira, eta Arau Subsidiarioen aldaketetan jaso beharko dira, hirigintza proiektua garatzeko baldintzatzaile gisa.
- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak jakinarazi zuen honako hauek direla ikertzen ari den gunearen babes zibileko arrisku handienak.
 - *Uholde arriskua:* 100 eta 500 urteko itzulera aldiko uholde arriskua duten guneeetan dago. Bidalitako dokumentuan ikerketa hidrauliko bat dago, eta bertan adierazten da egin beharreko jarduketak ez diela eragiten ur gora eta ur beherako partzela mugakideei, eta urbanizazioa 500 urteko itzulera aldiko uraldiaren gainetik geldituko dela. Nolanahi ere, txosten hori dagokion administrazio hidraulikoak babestu beharko du. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan xedatutakoa eta EAeko Ibaian eta Erreken LAPean jasotakoa bete beharko da.
 - *Arrisku sismikoa:* V-VI intentsitate gunean dago, Larrialdi Planaren arabera, arrisku sismikoari dagokionez. Horrenbestez, udalerrria salbuetsita dago larrialdi sismikoko plan bat egitetik. Dena den, eraikuntza berrian kontuan hartu beharko dira 997/2002 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntza Sismoerresistentearen Araua.



Usurbilgo Udala

- *Arrisku teknologikoak* (gai arriskutsuak garraiatzea): jarduera N-634 errepidetik gertu kokatuta dago, eta bertatik gai arriskutsuak garraiatzen dituzte. Dena den, kartografiatutako arriskua oso txikia da.
- Añarbeko Uren Mankomunitateak jakinarazi zuen, behin eskuragarri dagoen informazioa aztertuta, aldaketak ez diela eragiten Añarbeko uren hornidura edo saneamendu sistema orokorrei. Dena den, kontuan hartuta bidalitako dokumentazioaren definizio maila txikia, hirigintza proiektua bidali beharko da, balioztatu dezan. Esparru berrientzat aurreikusitako saneamenduak, hirikoak, sare bereizleak izan beharko ditu, eta "Añarbeko Uren Mankomunitatearen saneamendu eta isurketa erregelamenduan" ezarritakoa errespetatu beharko du. Euri uren isurketei dagokienez, Uraren Euskal Agentziak zehaztutako beteki unak bete beharko dira.

Erantzunak, ingurumen txosten estrategikoarekin batera, Usurbilgo Udalari bidaliko zaizkio, eta gero erantzunen bat jasotzen bada, hori ere udalera bidaliko da lehenbailehen, kontuan hartu dadin aldaketa idaztean eta izapldetzean.

4. 21/2013 Legearen, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoaren, V. eranskinean jasotako irizpideetan oinarritutako analisia.

Aldaketaren ezaugarriei dagokienez, horiek onartzean baimendu egiten da lurzoru antropizatu bat, Michelinek instalazioak handitzeko erabiltzerik aurreikusten ez dena, - Arau Subsidiarioak helburu nagusi hori ezartzen zioten eremuari- okupatzea eta eraldatzea, jarduera ekonomikoko erabilerarako oraingoan ere. baina eraikuntza eta hirigintza irizpide askoz zehatzago eta zorrotzagoekin, ingurumen alorra integratzeari eta herritarrek orokorrean erabiltzea sustatzeari dagokionez. Horrez gain, aldaketa horrek aukera emango du Donostialdeako LPPak lehentasunezkoztat jotzen duen jarduketa bat abian jartzeko, eta ez du eraginik izango beste plan edo programa batzuetan. 110 Zapategi eremu'an garatzearen kasuan, -78 Mitxelin eremuan egungo egoera. mantentzea bakarrik planteatzen da-, dagozkion eraikuntza eta hirigintza proiektuen bitartez egingo da. Hirigintza proiektu horrek hektarea 1eko baino gehiagoko jabari publiko hidraulikoko gunea hartzen duenez -3/1998 Legearen, Ingurumena Babestekoaren, 51. artikulua arabera gune sentikorra da, banakako ingurumen ebaluazioa egin beharko zaio, eta izapide horrek aukera emango du neurri babesleak eta zuzentzaileak ezartzeko, aldaketak ekarri ditzakeen balizko eraginak murrizteko.

Eragina jasan dezakeen eremuaren balioari eta zaugarritasunari dagokionez, eremua antropizatuta dago. Beraz, A-78 Zapategi eremuaren ekialdeko erdia (etorkizunean A-78 Mitxelin eremu berria izango da) Michelin enpresaren industria instalazioek okupatzen dute, eta ez du landaredia baskular espontaneorik. Mendebaldeko erdiak (etorkizunean A-110 Zapategi, izango denak), aldiz, landaredia erruderalak hartutako lursailak ditu, gehienbat. Landare horiek egokituta daude gizakiak eraldatutako lurzoruak kolonizatzeo. Espezie exotiko inbaditzaileak ere badaude, esate baterako, *Cortaderia selloana*, *Phyllostachys* sp. eta *Buddleja davidii*. Interes gutxiko zuhaitz apaingarriak ere badaude, esaterako, *Cedrus deodara* eta *Populus gr. deltoides*.



Usurbilgo Udala

A-110 Zapategi esparru berriaren mendebaldeko mugan erreka bat dago, guztiz bideratutakoa, eta kutsadura organiko zantzuak dituena. Halaber, esparru horretan ere Ori ibaiaren zati bat dago, egoera ekologikoa "tartekoa" duena, ingurumen helburua apur bategatik betetzen ez duena. Erriberan baratzeak eta landatutako lur txikiak daude, eta bertako landaredia espontaneoak espezie adbertizioak dira, besterik ez. Ibilgutik gertuen dagoen zerrendan zuhaixkak daude, eta sahatsak (*Salix atrocinerea*, *Salix alba*) eta haltz gazteak dira nagusi (*Ainus glutinosa*), baita hainbat banbu populazio ere. Oihanpea oso pobrea da, eta sasiak nagusi dira. Oro har, plangintzaren aldaketak ukitutako esparruan dagoen landarediaren interesa oso murrizta da, eta ez dago interes komunitarioko habitatik.

Paisaiari dagokionez, Oriako Paisaiaren Ekintza Planak (PEP) Usurbilen aztertzen ari garen esparrua "hiri paisaia" paisaia unitatean sartzen du. PEPean balioespen okerrean duen paisaia unitatea da, bai irizpide objektiboengatik bai balioespen sozialagatik.

Laburtzeko, esan daiteke aldaketak ukitutako esparruak ez duela ezaugarri natural nabarmenik, ez duela barruan Natura 2000 sareko espaziorik, ez EAeko Gune Babestuen Sarekorik, ezta EAeko Korridore Ekologikoen Sareko egiturazko elementurik ere. Inguruan ez da ikusi, gainera, Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan sartutako katalogatutako edo mehatxatutako animalia espezierik, ezta onartutako Kudeaketa Plana duten animalia espezierik ere. Azkenik, ez dago katalogatutako edo katalogatzeko proposatutako ondare elementurik, eta ez dator bat Interes Geologikoko tokiren, ibilbideren edo punturen batekin.

Muga balioak edo ingurumenaren kalitateko helburuak gaintzeari dagokionez, ingurumen azterketa estrategikoak barruan dakar ikerketa akustiko bat, eta bertan aztertzen da honako zarata iturriek izango duten eragina: N-634 errepidea (Lasarte-Txikiardi zatia), GI-3831 errepidea (Txikiardi Auzoaren eta Geltoki kalearen artean), N-634 errepidera sartzeko hiri bideak, Euskotrenen tren sarea, eta, azkenik, jarduketa gunearen barruko etorkizuneko jarduerak eta etorkizuneko partzeletarako sarrerak. Honako hartzaile nabarmenak identifikatu dira: Txikiardi auzoko eta Arsuaga kaleko etxebizitzak eta dagoen gune industrialia eta merkataritzakoa.

Analisi akustikoaren eragina da egungo egoeran eta etorkizunean ez direla gaintzen kalitate akustikoko helburuak, ez erabilera gehienbat industrialia eta hirugarren sektorekoa duten guneetan ez etxebizitzaren gunean.

Ingurumen azterketa estrategikoak ere ikerketa hidrauliko bat du. barruan, esparruan dauden uholde arriskuak saihesteko. Izan ere, EAeko uholde arriskuen mapen arabera, aztertzen ari garen esparruak egungo egoeran 10, 100 eta 500 urteko itzulera aldiko uholdeak jasan ditzake, baina kontuan hartu beharra dago esparruaren hirigintza eraldaketan aurreikusi dela urbanizazio plataforma egungo egoeratik altxatzea. Ikerketa hori oraindik erakunde eskudunak ikus-onetsi behar du -URAK-, eta ondorioztatzen du Zapategi esparruko urbanizazio plataforma 500 urteko itzulera aldiko uholdeak jasan ditzakeen gunetik kanpo gelditzen dela, eta ez diela eragiten partzela mugakideei.



Usurbilgo Udala

Aldaketaren esparruaren beste balizko arrisku bat lotuta dago lurzorua kutsatu dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan egotearekin. Horri dagokionez, igorri zen *Ingurumen Administrazio*ko Zuzendariaren 2017ko ekainaren 6ko Ebazpena, *Michelin España Portugal SA* sozietatearen jarduera garatu zen partzelaren, *Usurbilko (Gipuzkoa)* udal mugartean kokatutakoaren, 3 GUNEA izeneko lurzorua kalitatea adierazten duena, 1/2005 Legean, otsailaren 4koan, *Lurzorua Ez Kutsatzeko eta Kutsatutakoa Garbitzekoan*, araututako prozeduraren arabera. Ebazpen horrek lurzorua erabilera industrialerako eraldatuztat jotzen du, 1/2005 Legean, otsailaren 4koan, adierazitako baldintzetan, eta adierazten du MZ3-P-9 piezometro baten jarraipena egin beharko dela. Jarraipen hori 2017an eta 2018an egin zen, eta lortutako emaitzak beti egon dira indarrean dagoen araudiaren esku hartze mailaren azpitik.

Ondoreei dagokienez, aldaketak eragin negatibo "ez esanguratsuak" edo "ez oso esanguratsuak" ekarriko ditu goian adierazitako ingurumen aldagaietan, hau da, txikiak, eta kontrolatu ahal izango dira egin beharreko obren lizentzien edo baimenen bidez. Nabarmendu behar da eragin positiboak ere izango direla, eta horietako batzuk ez lirakekeela gertatuko Arau Subsidiarioetako hasierako antolamendua mantendu balitz eta, hortaz, urbanizazio bat eta eraikuntza industrial bat hezurramitu balitz aldaketa honen hirigintza araudian ezarritako irisgarritasun, hiri integrazio eta jasangarritasun irizpideak kontuan hartu gabe. Beraz, aipatzeko da paisaia kalitatearen eta giza habitatekoaren eta eragin sozioekonomikoaren hobekuntza (gutxi gorabehera 950 lanpostu sortuko dira).

Hori dela eta, kontuan hartuta aurreko gogoeta guztiak, ondorioztatu da Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren aldaketa puntual honek planteatutako antolamenduak ez duela ingurumenean eragin nabarmenik izango, ez hark planteatzen dituen jarduketan ezaugarriengatik ez ukitutako inguruaren sentikortasunagatik. Halaber, Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren aldaketa puntualak antolatutako esparrua txikitzat jo da, eta hirigintza proiektuari ingurumen eraginaren banakako ebaluazioa egin beharko zaio. Ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta egiteak ez luke nabarmen hobetuko ingurumenaren eraginak identifikatzea eta balioestea, ezta zuzentzeko beharrezko neurri zuzentzaileak definitzea ere.

Ondorioz, aurrekoarekin guztiarekin bat eta 21/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoaren, 31. artikuluan xedatutakoari eta 22/2016 Foru Dekretuan, uztailaren 19koan, aurreikusitakoari jarraituz, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak honako ingurumen txosten estrategikoa igorri du, honako hau jasotzen duena:

Lehena.- Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren aldaketa puntualari, A-78 Zapategi eremuarenari, ingurumen ebaluazio estrategiko arruntik ez egitea. Izan ere, 21/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, V. eranskinean ezarritako irizpideen arabera egindako azterketaren arabera, eta kontuan hartuta egindako kontsulten emaitza, ondorioztatu da ez duela eragin negatibo nabarmenik izango ingurumenean, baldin eta betetzen badira ingurumen txosten estrategiko honen bigarren apartatuan ezarritako baldintzak.

Bigarrena.- Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren aldaketa puntualak, A-78 Zapategi eremuarenak, eta hori garatzen duten eraikuntza eta urbanizazio



Usurbilgo Udala

proiektuek, honako jarraibide hauek jasoko dituzte, ingurumen dokumentu estrategikoak diseinatutako neurri babesle eta zuzentzaileez eta gainbegiratze planaz gain:

1. Plana aldatzeko hirigintza arauetan, 5. artikuluan, *Proiektua osatzen duten dokumentuak eta haien irismena* izenekoan, ezarriko da ingurumen dokumentu estrategikoaren neurri babesle eta zuzentzaileak eta gainbegiratze plana nahitaez bete beharko direla, eta aurrekontu bat izan beharko dutela ondo garatzeko.
2. Plana aldatzeko hirigintza arauetan, *IV. Urbanizazio baldintzak* izeneko apartatuaren idazkera aldatuko da, ezartzeko guztiz aplikatu beharko direla honako apartatu hauek: *7. Ingurumen integrazioa: neurri babesleak, zuzentzaileak eta konpentsatzaileak* eta *8. Gainbegiratze programa*. Horrez gain, ezarriko da nahitaez sartu beharko dela hirigintza proiektuan bi apartatu horiek abian jartzea bermatzeko aurrekontu bat eta hon egiaritzeko arduradunak jarri beharko direla.
3. 4/2019 Legearen, otsailaren 21ekoaren, EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoaren, 7. artikulua xedatzen duenari jarraituz, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrek jasangarritasun energetikoaren azterketa bat izan beharko dute, honako alderdi hauek jasoko dituenak:
 - a) Jasangarritasun energetikoaren eskakizunetara egokitzearen ebaluazioa.
 - b) Energia berriztagarriak eraikinetan eta azpiegiturretan ezartzearen ebaluazioa.
 - c) Mugikortasun azterketa, energia kontsumoarekin lotuta, garraio pribatuaren erabilerearen alternatibak eta motorrik gabeko mugikortasuna eta mugikortasun eza sustatzeko politikak barne.
 - d) Kanpoko argiteria publikoaren azterketa, gune publiko bakoitzarentzako argi maila eta denbora egokienak ebaluatzeko.

Ingurumen ebaluazio estrategikoko prozeduretako bat egin behar zaionez, egokia litzateke Udalak aipatutako jasangarritasun energetikoaren azterketa egitea eta aldaketa honen dokumentu moduan onartzea.

4. Horrez gain, aztertu egin behar da aldaketaren zehaztapenetan gehitzea 4/2019 Legeak, otsailaren 21ekoak, EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoak, hirigintzari eta eraikuntzari buruz dakartzan betebeharrak eta baldintzak. Honako hauek daude horien artean:
 - a) Erabilera publikoko birkargatzeko estazioak aurreikusi beharko dira aldaketaren esparruan, ibilgailu elektrikoak eta erregai



Usurbilgo Udala

alternatiboek bultzatutakoak erabiltzen dituztenentzako energia hornidura bermatzeko, eta bizikletak erabiltzea eta aparkatzea errazteko espazioak ere bai.

- b) Eraiki beharreko erabilera industrialeko eta zerbitzuetako eraikin berriek bete egin beharko dituzte une bakoitzean galdagarriak diren ziurtagiri energetikoen betekizunak.

Hirugarrena.- 21/2013 Legearen 31.4. artikuluan xedatutakoari jarraituz, ingurumen txosten estrategiko honek indarra galduko du eta bere ondareak ekartzeari utziko dio baldin eta, behin Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, ez bada plana onartu gehienez ere argitaratu eta lau urtera.

Laugarrena.- Agintzea ingurumen txosten estrategiko hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko, baita zuzendaritza honen webgunean ere.

Donostian, 2019ko abuztuaren 7an

INGURUMENENKO ZUZENDARI NAGUSIA
Sin. : MÓNICA PEDREIRA LANCHAS

BEHIN BEHINGO ONESPERAKO DOKUMENTUA

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (TE) ZAPATEGI eremuaren aldaketa puntualaren (03. aldaketa) dokumentuaren idazleek, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, eta udal aholkulari juridikoak, ARAUDI S.L.P. taldeko Nekane Azarola Martinez andereak, jendaurreko epealdian tartekatutako alegazioa eta jasotako txostenak aztertu dituzte. Hauen inguruan, honakoak adierazi eta proposatu dituzte:

- **GUREAK LANEAN S.A. enpresako Zuzendariaren alegazioa.**

Alegazioan, akats zuzenketa eskatzen da. Orohar, alegazioak eskatzen duen aldaketa da, eraikigarritasun osoa bera mantenduaz, P.2.1., P.2.2. eta P.2.3. partzelei dagokien eraikigarritasuna egokitzea, jarraian zehazten den moduan:

PARTZELA	ERAIKIGARRITASUNA M2(T)
P.2.1.	24.717
P.2.2.	10.484 (horietatik derrigorrez 3500 s.a.)
P.2.3.	3.945

Alegazioa (haren zuzenketa barne) ontzat hartzea proposatzen da, eraikigarritasun osoan aldaketarik eragiten ez duenez eta partzelen arteko banaketaren aldaketa soila dela ikusita. Hala, alegazio hau onartzeak dokumentuan zifra horiei dagozkien egokitzapenak barneratzea ekarriko du B. DOKUMENTUA: HIRIGINTZA ARAUAK-ko 17. eta 24. artikuluetan, C.



Usurbilgo Udala

DOKUMENTUA: ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA JARRAIBIDEAK-ko 11. atalean, D. DOKUMENTUA: BIDERAGARRITASUN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOAREN AZTERLANA-ko 5., 6., 7., 8., 9., 10. eta 11. ataletan eta IRAUNKORTASUN EKONOMIKOAREN TXOSTENA-ko 5., 6. eta 8. ataletan eta H.DOKUMENTUA: ERANSKINA-ko I. ERANSKINA: ANTOLAMENDU KOADROA atalean.

- **Gipuzkoako Foru Aldundiko Kudeaketa eta Plangintzako Zuzendari Nagusiaren Bide Azpiegituretako Departamentuaren txostena.**

Bertan, honakoa ondorioztatzen da:

“Agiria aztertu ondoren, Departamentuaren eskumeneko gaiari dagokienez ez dugu eragozpenik ikusten onarpena emateko”.

- **Espainiko Gobernuako Ekonomia eta Enpresako Ministerioko telekomunikazioetako eta informazio-teknologietako Zuzendari Nagusiaren txostena.**

Bertan, honakoa ondorioztatzen da:

“3) CONCLUSIONES. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 35.2. de la Ley 9/2014, de 9 de mayo, General de Telecomunicaciones, se emite informe favorable en relación con la adecuación de la MODIFICACIÓN PUNTUAL (MP3) DEL ÁREA 78 (TE) ZAPATEGI DEL TEXTO REFUNDIDO DE LA REVISIÓN DE LAS NORMAS SUBSIDIARIAS (NNS) DEL PLANEAMIENTO DE USURBIL (GIPÚZKOA) a al normativa sectorial de telecomunicaciones.”

- **Espainiko Gobernuako Sustapen Ministerioko Abiazio Zibileko Zuzendari Nagusiaren txostena.**

Bertan, honakoa ondorioztatzen da:

“Conclusión: En consecuencia con todo lo anteriormente expuesto, este Centro Directivo informa favorablemente la “Modificación Puntual 03 del Texto Refundido de Normas Subsidiarias de Planeamiento de Usurbil, A-78 (TE) ZAPATEGI”, en lo que a servidumbres aeronáuticas se refiere, siempre y cuando las construcciones propuestas u objetos fijos (postes, antenas, carteles, etc.) no vulneren las servidumbres aeronáuticas”.

- **Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendari Nagusiaren ingurumen txosten estrategikoa.**

Bertan, zehazten da:

“3.- Ukitutako administrazioei, interesdun pertsoei eta herritarrei oro har egindako kontsulta



Usurbilgo Udala

(...)

Behin epea amaitutakoan, eta txosten hau igorri arte, honako erantzun hauek jaso dira:

- URA Uraren Euskal Agentziak jakinarazi zuen, txostena gorabehera, Kantauriko Ur Konfederakundeari bidali ziola eskaera, hark txostena egiteari egoki irizten bazion ere. Horrez gain, gaineratu zuen ezingo zuela txostenik egin Usurbilgo Udalari eskatutako ikerketa hidraulikoa izan arte.
- Kantauriko Ur Konfederakundeak jakinarazi zuen, txostena gorabehera, URari bidali ziola dokumentazioa, hark txostena egiteari egoki irizten bazion ere.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza: dokumentazioa aztertu ondoren, ez zuen beharrezkotzat jo txostena egitea.
- Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza: dokumentazioa berrikusi ondoren, jakinarazi zuen jarduera proiektu horrek ez dakarrela eraginik kultur ondarearentzat.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak jakinarazi zuen aipatutako plana egikaritzeak ez dakarrela eragin nabarmenik osasun publikoarentzat, ingurumen eraginaren ikerketa edo ebaluazio prozesua bera egitean kontuan hartu beharreko funtsezko alderdirik dakarrenik.
- Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak bidalitako dokumentazioan jasotako proposamenaren aldeko txostena egin zuen, hirigintza proiektuan proposatzen baita Oriaren gunen mugakidean ingurumena leheneratzeko programa bat abiaraztea, gunea berriz bertako espezieekin landareztatzea eta espezie exotiko inbaditzaileak kontrolatzeko programa bat proposatzen baita. Programa horiek zehatz-mehatz definitu beharko dira, eta Arau Subsidiarioen aldaketetan jaso beharko dira, hirigintza proiektua garatzeko baldintzatzaile gisa.
- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak jakinarazi zuen honako hauek direla ikertzen ari den gunearen babes zibileko arrisku handienak.
 - x *Uholde arriskua*: 100 eta 500 urteko itzulera aldiko uholde arriskua duten guneetan dago. Bidalitako dokumentuan ikerketa hidrauliko bat dago, eta bertan adierazten da egin beharreko jarduketak ez diela eragiten ur gora eta ur beherako partzela mugakideei, eta urbanizazioa 500 urteko itzulera aldiko uraldiaren gainetik geldituko dela. Nolanahi ere, txosten hori dagokion administrazio hidraulikoak babestu beharko du. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan xedatutakoa eta EAEko Ibaien eta Erreken LAPean jasotakoa bete beharko da.
 - x *Arrisku sismikoa*: V-VI intentsitate gunean dago, Larrialdi Planaren arabera, arrisku sismikoari dagokionez. Horrenbestez, udalerrria salbuetsita dago larrialdi sismikoko plan bat egitetik. Dena den, eraikuntza berriari kontuan hartu beharko dira 997/2002 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntza Sismoerresistentetaren Araua.



Usurbilgo Udala

- x *Arrisku teknologikoak* (gai arriskutsuak garraiatzea): jarduera N-634 errepidetik gertu kokatuta dago, eta bertatik gai arriskutsuak garraiatzen dituzte. Dena den, kartografiatutako arriskua oso txikia da.
- Añarbeko Uren Mankomunitateak jakinarazi zuen, behin eskuragarri dagoen informazioa aztertuta, aldaketak ez diela eragiten Añarbeko uren hornidura edo saneamendu sistema orokorrei. Dena den, kontuan hartuta bidalitako dokumentazioaren definizio maila txikia, hirigintza proiektua bidali beharko da, balioztatu dezan. Esparru berrientzat aurreikusitako saneamenduak, hirikoak, sare berezileak izan beharko ditu, eta "Añarbeko Uren Mankomunitatearen saneamendu eta isurketa erregelamenduan" ezarritakoa errespetatu beharko du. Euri uren isurketei dagokienez, Uraren Euskal Agentziak zehaztutako beteki unak bete beharko dira.

Erantzunak, ingurumen txosten estrategikoarekin batera, Usurbilgo Udalari bidaliko zaizkio, eta gero erantzunen bat jasotzen bada, hori ere udalera bidaliko da lehenbailehen, kontuan hartu dadin aldaketa idaztean eta izapldetzean."

Eta hala, aipatu txostenaren ondorioetan:

Lehena.- Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren aldaketa puntualari, A-78 Zapategi eremuarenari, ingurumen ebaluazio estrategiko arruntik ez egitea. Izan ere, 21/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, V. eranskinean ezarritako irizpideen arabera egindako azterketaren arabera, eta kontuan hartuta egindako kontsulten emaitza, ondorioztatu da ez duela eragin negatibo nabarmenik izango ingurumenean, baldin eta betetzen badira ingurumen txosten estrategiko honen bigarren apartatuan ezarritako baldintzak.

Bigarrena.- Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren aldaketa puntualak, A-78 Zapategi eremuarenak, eta hori garatzen duten eraikuntza eta urbanizazio proiektuek, honako jarraibide hauek jasoko dituzte, ingurumen dokumentu estrategikoak diseinatutako neurri babesle eta zuzentzaileez eta gainbegiratze planaz gain:

1. Plana aldatzeko hirigintza arauetan, 5. artikuluan, *Proiektua osatzen duten dokumentuak eta haien irismena* izenekoan, ezarriko da ingurumen dokumentu estrategikoaren neurri babesle eta zuzentzaileak eta gainbegiratze plana nahitaez bete beharko direla, eta aurrekontu bat izan beharko dutela ondo garatzeko.
2. Plana aldatzeko h.irigintza arauetan, *IV. Urbanizazio baldintzak* izeneko apartatuaren idazkera aldatuko da, ezartzeko guztiz aplikatu beharko direla honako apartatu hauek: *7. Ingurumen integrazioa: neurri babesleak, zuzentzaileak eta konpentsatzaileak* eta *8. Gainbegiratze programa*. Horrez gain, ezarriko da nahitaez sartu beharko dela hirigintza proiektuan bi apartatu horiek abian jartzea bermatzeko aurrekontu bat.eta hon egikaritzeko arduradunak jarri beharko direla.
3. 4/2019 Legearen, otsailaren 21ekoaren, EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoaren, 7. artikulua xedatzen duenari jarraituz, Hiri



Usurbilgo Udala

Antolamenduko Plan Orokorrek jasangarritasun energetikoaren azterketa bat izan beharko dute, honako alderdi hauek jasoko dituen:

- a) Jasangarritasun energetikoaren eskakizunetara egokitzearen ebaluazioa.
 - b) Energia berriztagarriak eraikinetan eta azpiegituretan ezartzearen ebaluazioa.
 - c) Mugikortasun azterketa, energia kontsumoarekin lotuta, garraio pribatuaren erabileraren alternatibak eta motorrik gabeko mugikortasuna eta mugikortasun eza sustatzeko politikak barne.
 - d) Kanpoko argiteria publikoaren azterketa, gune publiko bakoitzarentzako argi maila eta denbora egokienak ebaluatzeko. Ingurumen ebaluazio estrategikoko prozeduretako bat egin behar zaionez, egokia litzateke Udalak aipatutako jasangarritasun energetikoaren azterketa egitea eta aldaketa honen dokumentu moduan onartzea.
4. Horrez gain, aztertu egin behar da aldaketaren zehaztapenetan gehitzea 4/2019 Legeak, otsailaren 21ekoak, EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoak, hirigintzari eta eraikuntzari buruz dakartzan betebeharrak eta baldintzak. Honako hauek daude horien artean:
- a) Erabilera publikoko birkargatzeko estazioak aurreikusi beharko dira aldaketaren esparruan, ibilgailu elektrikoak eta erregai alternatiboek bultzatutakoak erabiltzen dituztenentzako energia hornidura bermatzeko, eta bizikletak erabiltzea eta aparkatzea errazteko espazioak ere bai.
 - b) Eraiki beharreko erabilera industrialeko eta zerbitzuetako eraikin berriek bete egin beharko dituzte une bakoitzean galdagarriak diren ziurtagiri energetikoen betekizunak.”

Eskazizun hauek Arauen Aldaketa dokumentu jasoko dira, behin behineko onepenenaren izapidetzerako.

– **URA uraren euskal agentziaren txostena.**

Bertan, honakoa ondorioztatzen da:

“4. CONCLUSIONES

Teniendo en cuenta lo recogido en el apartado 3º del presente informe, para que la modificación puntual del PGOU de Usurbil pueda ser informado con carácter favorable por esta Agencia en las siguientes fases del procedimiento, se considera necesario que en la documentación de la citada modificación se atienda a lo siguiente:

- a) **En relación con el riesgo de Inundabilidad** se deberá dar cumplimiento a las limitaciones establecidas en el artículo 40.2 y 40.4 del Plan Hidrológico.



Usurbilgo Udala

Asimismo, se informa que, tal y como establece el artículo 41 del Plan Hidrológico, dado que parte del ámbito se sitúa fuera de la zona de policía del DPH corresponde a las administraciones competentes en materia de ordenación del territorio y urbanismo autorizar los distintos usos y actividades propuestos en el ámbito A-110 Zapategi, así como velar por el cumplimiento de las limitaciones establecidas en el artículo 40 en esta zona inundable exterior a la zona de policía.

De acuerdo con lo dispuesto en dicho Plan Hidrológico, se deberá realizar un nuevo Estudio Hidráulico con el modelo elaborado por URA, que es el que refleja la inundabilidad oficial y del SNCZI, que justifique que los desarrollos propuestos, además de ser compatibles con la normativa del Plan Hidrológico, son ambientalmente asumibles y no agravan la inundabilidad ni el riesgo preexistente en el entorno

- b) **En relación con el abastecimiento** es necesario que antes de la aprobación provisional de la modificación del Plan General se incluya en la documentación la cuantificación de las nuevas demandas que se prevén, para que, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 25.4 del TRLA, en lo referente a la existencia o no de recursos hídricos se pronuncie la Confederación Hidrográfica del Cantábrico.
- c) **En relación con las redes de abastecimiento y saneamiento**, antes de la aprobación provistonala de esta modificación se deberá incorporar en la documentación gráfica las redes futuras del ámbito objeto de modificación, así como el informe de conformidad del Ente Gestor, Consorcio de Aguas del Añarbe, que justifique la suficiencia de las infraestructuras existentes.

Eskazizun hauek Arauen Aldaketa dokumentuan jasoko dira, behin behineko onespeneraren izapidetzerako.

Hala, udal arkitektoak, Ekhiñe Eiguren Azkune andereak, eta udal aholkulari juridikoak, ARAUDI S.L.P. taldeko Nekane Azarola Martinez andereak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (TE) ZAPATEGI eremuaren aldaketa puntualarako (03. aldaketa) dokumentu berria osatua dute –2019 urria– aurreko irizpideak kontutan izanik.

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2019ko urriaren 17an egindako bilkuran, Agurtzane Solaberrieta, Lur Etxeberría, Beñat Larrañaga, Mirari Azurmendi eta Patxi Suárezen aldeko botoekin, aho batez egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGO: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategineko A-78 (TE) ZAPATEGI eremuaren Aldaketa Puntualaren (03. aldaketa) hasierako onespenerako dokumentuari aurkezturiko alegazioa honelaxe erantzutea:

- 1. alegazioa



Usurbilgo Udala

Interesatua: GUREAK LANEAN, S.A. (Asier Vitoria Inchausti)

Alegazioa AINTZAT HARTZEA eraikigarritasun osoan aldaketarik eragiten ez duelako eta partzelen arteko banaketaren aldaketa soila delako.

BIGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategineko A-78 (TE) ZAPATEGI eremuaren Aldaketa Puntualari (03. aldaketa) BEHIN BEHINGO onespina ematea, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, eta udal aholkulari juridikoak, Nekane Azarola Martínez andereak, aurkeztutako dokumentu berriaren arabera.

HIRUGARRENA: Espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordera igortzea, Planeamenduko Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualari dagokion txostena egin diezaion.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei jakinaraztea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli, Andoni Atxega San Sebastian eta Patxi Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

8.- MOZIOA: XUA GURASOEKIN ETXERA.

Mozioa diktaminatu gabe datorrenez, hasteko, batzarkideek aho batez onartu dute mozioa tratatzea.

Alkateak adierazi du deialdiarekin batera *Xua gurasoekin etxera* herri ekimenak aurkeztutako mozioa jaso zutela, baina azkenean herri ekimenak testu hori bertan behera utzi eta beste bat aurkeztu duela aipatu du.

Jarraian, *Xua gurasoekin etxera* herri ekimekoei hitza eman die mozio berria aurkeztu dezaten.

Plataformako kide batek hitza hartu du eta hasteko batzarkideei eskerrak eman dizkie prozesu honetan beraien partetik jaso duten arreta eta hurbiltasunagatik.



Usurbilgo Udala

Hasiera batean bai Usurbilen eta bai Orion mozio bat aurkeztu zutela esan du. Xuaren aita oriotarra dela eta ama berriz usurbildarra, hori dela eta, ekimen hau bi herrietan zabaltzen ari direla esan du. Xuak hiru urte betetzen dituenean eta herrira etortzen denean, gurasoak ere berarekin etortzea eskatzen dute, kondenaren 3/4ak beteta dituztelako eta dagokien legea aplikatuko balitzaie eskubide hori bermatuta eduki beharko luketelako.

Esan bezala, Usurbilgo eta Orioko udaletan mozio berdina aurkeztu zuten eta bi herrietako udal taldeekin harremanetan egon direla aipatu du.

Jarraian, bi udalerrietan aurkeztu zuten mozioa irakurri du:

“Xua Lasagabaster Uranga Picassenteko espetxean (Valentzia) sortu zen 2017ko urtarrilaren 19an. Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga gure herrikideen alaba da. Egun, bere amarekin bizi da eta espetxe berean preso dagoen aitarekin noizbehinka elkartzeko aukera izaten du. Hilabete gutxi barru, hiru urte beteko ditu eta, Espainiako legeak hala aginduta, bere gurasoengandik bereiziko dute eta ezin izango ditu ikusi bisitetan ez bada.

Eten oso mingarria izango da, jakina. Are gehiago, urruntasunak (Usurbil-Oriotik 600 km.ra dago Picassent) elkar ikusteko aukerak murriztuko dizkietelako. Gure ustez, ez lukete zertan banaketaren sufrimendu gehigarria jasan behar. Izan ere, Olatzek eta Patxi 10 urte bete dituzte preso joan den ekainean, beren 12 urteko zigorraren 3/4ak baino gehiago. Horrenbestez, Espainiako legeria arrunta aplikatuz, biek ala biek baldintzapeko askatasuna lortzeko eskubidea dute.

Horixe da, hain justu, agintariei eskatzen dieguna. Salbuespenezko legeak alboratu eta legez eta gizalegez joka dezatela. Ekidin daitekeen sufrimendurik ez diezaietela eragin hirurak banaduta eta Xuarekin batera, Patxi eta Olatz gurasoak ere etxera ekar ditzatela.

Dagoeneko ehunka herritarrek atxikimendua eman diote eskaera honi eta egunez egun zerrenda hori luzatzen doa. Jarrera horrek argi uzten du Patxi eta Olatz bere familiarekin berriro herrian bizitzeak elkarbizitzari ez liokela inolako trabarik ekarriko.

Hori guztia kontutan hartuta, udalbatza honi ondorengo erabakiak har ditzala eskatzen diogu:

- 1.- Xua, Olatz eta Patxi herritarren egoera aintzat hartu eta eskaerarekin bat egitea.
- 2.- Udalbatzaren izenean, eskaera hori Picassenteko espetxeko Zuzendaritzari, Junta de Tratamiento delakoari, Espainiako Barne Ministeritzako SGIP-ri (Secretaría General de Instituciones Penitenciarias) helaraztea. Halaber, Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentralera (Juzgado Central de Vigilancia Penitenciaria) ere igortzea bai Olatz zein Patxiri dagozkien espedienteetan kontuan hartua izan dadin.
- 3.- Usurbilgo zein Orioko herritarrak eskakizunaren garrantziaz jabetzeko bi herrietako alkateek herritarrei dei egitea eskaerara batu daitezen. Halaber, eskaera hori



Usurbilgo Udala

gauzatzeko bidean, eragina izango luketen edozein erakunde edo entitateak zuzenean interpelatzea.

4.- Udalak eskakizuna babesten duela islatzeko, udaletxeko ageriko tokian eskaera irudikatzea.

5.- Hedabideei erabaki hauen guztien berri ematea.”

Plataformako kideak adierazi du, esan bezala, irakurritako testua zela hasiera batean osatu zuten mozioa. Baina gaineratu du oso garrantzitsua iruditzen zitzaiela adostasuna bermatzea gai honek duen sentsibilitateagatik eta hemendik aurrera eman nahi dituzten urratsei begira, beraien asmoa baita Gipuzkoako Batzar Nagusietara igortzea eta baita Eusko Legebiltzarrerara eta bestelako eragileengana iristea ere. Beraz, esan bezala, bi herrietan erabateko adostasuna lortzeko beste mozio bat aurkezten dutela esan du.

Jarraian, mozio berria irakurri du:

“Usurbilgo Udalbatzarrak, Olatz Lasagabaster eta Patxi Urangaren eta batez ere urtarrilean 3 urte egitean gurasoengandik banatuko duten beren alaba Xuaren egoera kontutan hartuta, ondorengo mozioa babesten du:

Dagokien autoridadeei eskatzea behar dituzten neurriak har ditzatela, legedia kontutan hartuz ahal bezain beste bermatzeko adin txikikoa eta bere gurasoen arteko harremana, zaintza eta gertutasuna, familiaren batasuna beraien sustraituta dauden ingurune sozialean lagunduz eta adin txikikoaren interes gorena babestuz.”

Plataformako kideak gaineratu du aurkeztu zuten lehenengo mozioa zehatzagoa zela iruditzen zitzaiela eta baita gatazkaren konponketaren ondorioetarako eraginkorragoa izan zitekeela. Baina lehen aipatu duen moduan, adostasuna lortze aldera, bigarren mozio hau aurkeztu dutela adierazi du.

Amaitzeko, Udalbatzarraren babesa eskatu du.

Alkateak zinegotziei eman die hitza.

Patxi Suarezek hitza hartu du eta honen inguruan egiten duen hausnarketa irakurri du.

“El nuevo tiempo político y social abierto tras la desaparición de ETA hace necesaria el diseño e implementación de una nueva política penitenciaria en relación a las personas condenadas delitos relacionados con su pertenencia a ETA. Esta nueva política penitenciaria debe responder a la realidad social del tiempo en que han de ser aplicadas, atendiendo fundamentalmente al espíritu y finalidad previsto en el ordenamiento jurídico, que en el caso de la política penitenciaria está orientado hacia la reeducación y reinserción social.



Usurbilgo Udala

Esa nueva política penitenciaria debe sustentarse en una interpretación y aplicación de las normas básicas del ordenamiento jurídico constitucional lo más favorable posible a los derechos de las personas, buscando la máxima armonía con los valores de convivencia en libertad, atendiendo a principios básicos del derecho como son el de humanidad de las penas, responsabilidad proporcional al daño causado a la sociedad lo que uno hace, o el principio de que el sentido de las penas ha de ser su utilidad social de cara a la prevención de delitos y a la reinserción.

Esa nueva política penitenciaria debe hacer factible el cumplimiento de la condena en cárceles próximas a sus lugares de arraigo familiar y social, no sólo para cumplir con los principios jurídicos que he mencionado sino también para finalizar con las consecuencias negativas, costes y riesgos que el alejamiento comporta para familiares y amistades, que no resultan justificables, y que son evitables.

Por lo que se refiere al acceso a diversos beneficios penitenciarios, hasta la libertad condicional, si bien es cierto que la ley contempla una serie de restricciones para las condenas relacionadas con delitos terroristas, no es menos cierto que estas estaban pensadas para personas pertenecientes a organizaciones que lo ejerzan. En ese sentido, el hecho es que el nuevo tiempo abierto tras el cese definitivo de ETA (2011) y su posterior disolución debe provocar una reflexión y desarrollo de una nueva política penitenciaria que favorezca la aplicación de las normas penales que prevén, si se dan los requisitos establecidos y de manera individualizada, la adopción de medidas como el acceso a la libertad condicional.

Es necesario avanzar en las políticas de convivencia para lo cual resulta oportuna la aplicación del principio de individualización, humanización y reconocimiento del daño causado.

En especial, dentro de esa nueva política penitenciaria, y en cuanto al cumplimiento de las penas privativas de libertad, cabe resaltar que la inmensa mayoría política se ha pronunciado en favor de evitar que el cumplimiento de la condena origine un desarraigo familiar y social motivado por el alejamiento entre la prisión y su ámbito natural de socialización, sus lugares de arraigo familiar y social.

Eskerrik asko.”

Beñat Larrañagak hitza hartu du eta honako hitzak esan ditu: “Pixkabat errepikakorra izan badaiteke ere, EH Bilduren aldetik plataformaren jarrera txalotu nahiko genuke adostasunaren alde egin duten saiakeragatik bi herrietan eta edukien murrizketan.

Era berean, sakabanaketa egoera salatu nahiko genuke, izan ere Olatz, Patxi eta Xua gaur egun Usurbildik 600 km.tara baitaude Valentzian eta dispertsio politika horrek senideei eragiten dien sufrimendu guztia eratorriz. Bereziki Xuaren egoera, izan ere erremediorik jartzen ez baldin bada, banaketa traumatiko baten aurrean aurkitzear baigaude. Gainera aipatu beharra dago Olatz eta Patxiri egotzitako espetxe zigorra ia bere osotasunean bete dutela eta, hortaz, gizalegez eta legez beraien zigorraren 3/4ak



Usurbilgo Udala

beteta dituztenez kalean beharko luketela egoera lazgarri hau eragotziz. Euskal Herrian, aipatu den moduan, garai politiko berri bat bizi dugu eta gizarteak aldaketa baten aldarria adierazi du. Hortaz, alde guztiei dagokie bide honetan pausoak ematea eta espetxe politikak ere egungo egoerara moldatu beharko luke, gaur plataformak erakutsi duen jarrera eraikitzailea eta malgua adibide hartuta.”

Batzarkideek, aho batez, honako mozioa onartu dute:

“Usurbilgo Udalbatzarrak, Olatz Lasagabaster eta Patxi Urangaren eta batez ere urtarrilean 3 urte egitean gurasoengandik banatuko duten beren alaba Xuaren egoera kontutan hartuta, ondorengo mozioa babesten du:

Dagokien autoridadeei eskatzea behar dituzten neurriak har ditzatela, legedia kontutan hartuz ahal bezain beste bermatzeko adin txikikoa eta bere gurasoen arteko harremana, zaintza eta gertutasuna, familiaren batasuna beraiek sustraituta dauden ingurune sozialean lagunduz eta adin txikikoaren interes gorena babestuz.

El Pleno del ayuntamiento de Usurbil, tomando en consideración la situación de Olatz Lasagabaster Anza y Patxi Uranga Salbide, así como el interés superior de la menor, hija de ambos, Xua, que va a ser separada de su madre en enero al cumplir 3 años de edad, adopta la siguiente moción:

Solicitar a las autoridades competentes la adopción de las medidas necesarias a fin de que, teniendo en cuenta lo previsto en el legislación aplicable, garanticen en la mayor medida posible la relación de la menor con sus progenitores, su relación, cuidado y proximidad, favoreciéndose el mantenimiento de la unidad familiar dentro de sus lugares de arraigo social, favoreciendo el interés superior de la menor.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisolí, Andoni Atxega San Sebastian eta Patxi Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

Plataformako beste kide batek hitza hartu du eta adierazi du uste dutela pauso ausartagoak eman behar direla, testu soil horretan geratu gabe. Hala ere, denek aldetik jarrera positibo bat ikusi dutela dio eta hori eskertu nahi izan du.

Bestalde, gaineratu du argazki bat aterako dutela udaletxeko eskaileretan eta Udalbatzako kideak gonbidatu ditu beraiekin batera argazki horretan ateratzera.



Usurbilgo Udala

9.- GALDERA-ESKAERAK.

Ez dago galdera edo eskaerarik.

Alkateak adierazi du udal langile zein zinegotziek berdintasunaren inguruko formazioa hasi zutela eta gogorarazi du astelehenean 17:30etatik 20:30etara Potxoenean bigarren saioa izango dela.

Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:30ean eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.